

## **"TORREBASO PARTZELAN" AISIALDIRAKO UDAL ORTUAK ERABILTZEKO LAGAPENA ESLEITZEKO OINARRIAK.**

### **1.- HELBURUA.**

*Oinarri hauen helburua da udal ortuak irabazi asmorik gabe ustiatzeko baldintza teknikoak eta juridikoak ezartzea, mota horretako ortuen onura soziala, batetik; eta bertako barietateak gordetzeak eta interes handiko nekazaritza-ekosistema mantentzeak dakarren ingurumen eta ondare onura, bestetik, uztartuz. Helburu orokorrak honako hauek dira.*

- *Pertsona helduen denbora libre modu praktiko eta aberasgarrian betetzea.*
- *Nekazaritza tradizionalaren erabilera eta ohitura batzuk berreskuratzea.*
- *Produktu naturaletan oinarritutako elikadura osasungarria bultzatzea.*
- *Konpostajea bultzatzea.*
- *Jasangarritasuna kontuan izatea*

*Partikularrek aisialdirako ortuak ustiatzea udal ondasunen erabilera pribatiboa da, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 78. artikulua eta ondorengoek arautzen dutena. Ortuak erabiltzeko lagapenak deialdia publiko eta zozketa bidez egingo dira, eskatzaile guztiak baldintza berak bete beharko baitituzte.*

### **2.- NORENTZAT.**

*Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoak eta irabazi asmorik gabe edota herri-onurarako jarduten duten pertsona juridikoak parte hartu ahal izango dute esleipen prozesuan zein lagapena lutzatzeko prozesuan, baldin eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako ezintasun edo bateraezintasunik ez badute. Horretaz gain, honako baldintzak bete beharko dira:*

- *Eskoriatzako udalean urte beteko antzintasunez erroldatuta egotea.*
- *Erretiratu edo aurre-erretiratu izatea, edo 60 urtetik gorakoa izatea eta lan-egoera aktiboan ez egotea.*
- *Orturik jabetzan ez izatea.*

*Salbuespen gisa, 60 urtetik beherako pertsona ere laga ahalko zaie ortua, baldin eta lanerako ezintasuna badute. Hala ere, esleipendun izanda, ondoren, baldintza orokor guztiak betetzen dituen beste norbaitek eskaera eginez gero, 2 hilabeteko epean utzi beharko du ortua, horrela eskatzen zaionetik kontaktzen hasita.*

### **3.- KANONA.**

*Ez dago kanonik, lagapena prekarioan egiten da.*

### **4.- EPEA.**

*Ortuak 5 urte naturalerako esleituko dira, horrela, lehenengo esleipeneko kontratuak 2021eko abenduaren 31n amaituko dira, esleipen eguna edozein izanda ere.*

*Epe orokorraren salbuespen gisa honako hau ezartzen da: lau urteko esleipen epe barruan erabiltzaileetakoren batek bere partzelari uko egin edo libre lagako balu, itxaron zerrendako hurrengo eskatzaileari lagako zaio ortua 2021ko abenduaren 31ra arte.*



## **5.- DEIALDI PUBLIKOA, PUBLIZITATEA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.**

*Oinarri hauek jendaurrean jarriko dira Udaleko iragarki oholean eta udal webgunean.*

*Aisialdirako ortua ustiatzeko lagapena jasotzeko interesa duten guztiek Udaletxeko Erregistro Orokorrean egin beharko dute eskaera, datorren abenduaren 7 ko 13:30era arte, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 10:30etatik 13:30era.*

*I eranskinetako ereduari jarraituz egin beharreko eskaerekin batera, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira.*

- NANaren kopia.*
- Lan-egoera aktiboan ez egotearen aitorpena.*
- Orturik jabetzan ez izatearen aitorpena.*
- Partzelak erabiltzeko ezarritako betekizun eta baldintza guztiak beteko dituela adierazten duen aitorpena.*
- Lanerako ezintasun iraunkorraren egiaztagiria, hala badagokio.*

*Eskatzaileak, Udalak lagatuko partzelaren bat erabiltzen badu gaur egun, partzela horren zenbakia jarri beharko du, eta hala nahi izanez gero, berriz ere esleipendun izanez gero, partzela horrekin jarraitzea gura duela.*

## **6.- DOKUMENTAZIOKO AKATSAK ZUZENTZEA ETA ONARTUEN ZERRENDA.**

*Eskaerak aurkezteko epea amaituta, aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatuko zaie interesatuei, eta horretako, bost eguneko epea izango dute.*

*Familia bakoitzak eskari bakarra egin ahal izango du. Baldintza hori ez betetzeak eskaera automatikoki baztertzea ekarriko du.*

*Aurkeztutako eskaerak eta zuzendutako akatsak aztertu ondoren, zozketan parte hartuko duten eskatzaileen zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarki oholean eta Udaleko webgunean.*

*Zerrendarekin batera zozketa eguna, lekua eta ordua jakinaraziko da. Zozketa publikoa izango da.*

## **7.- ZOZKETA.**

*Zozketaren buru Alkatea edo berak izendatutako zinegotzia izango da, eta Udal idazkaria edo honek izendatutako funtzionario bat ere bertan izango da zozketaren fede emateko. Zozketan esleipendun bakoitzari dagokion ortua ere zehaztuko da.*

*Esleipenera ateratako ortuak baino eskaera gehiago izanez gero, zozketan izandako hurrenkera gordeko duen eskatzaileen itxaron zerrenda egingo da.*

*Lehenago esleipendun izandako norbaiti berriz esleipendun izatea tokatuz gero zozketan, lehen izandako partzela hartu ahal izango du, betiere, berak horrela nahi izanez gero eta eskaera-orrrian berariaz horrela adierazi baldin badu.*

**PROZEDURA:**

*Bi ontzi izango dira.*



*1 ontzian, onartutako eskatzaileen izenak sartuko dira.*

*2 ontzian, ortu bakoitzari emandako zenbakia.*

*Lehenengo esleipendunen zerrenda egingo da. Esleipen hurrenkera berean izendatuko zaie 2 ontzitik aterako den ortu zenbakia. Horretarako, esleipendun zerrenda egin ondoren partzela bakoitzari jarritako zenbakia duten paperak sartuko dira.*

*Esleipendun ateratako norbaitek lehendik udal orturik balu, partzela horretan jarraitu ahal izango du, berariaz horrela adierazi badu eskaera-orrian. Kasu horretan, partzela hori ez da zozketatuko, eta beraz, partzela horri dagokion zenbakia ez da 2 ontzian sartuko.*

*Eskaria eskaintza baino handiagoa bada, esleipenik gabe geratutako eskatzaileekin itxaron zerrendan egingo da, lehentasunezko hurrenkera jarraituz, eta horrela, norbaitek partzelari uko eginez gero, esleipendun izendatzeko aukera izan.*

*Eskaria eskaintza baino txikiagoa baldin bada, eta ez badira esleitzen ortu guztiak, Udalak Alkate erabakiz esleitu ahal izango ditu esleitu gabe gelditu diren ortuak, prozedura hau erabaki ondoren egindako eskaeren erregistro egunaren antzinatasunari jarraituz, ortu guztiak esleitu arte.*

*Kasu horretan, kontratuaren epea, esleipen egunetik prozedura honetan esleitutako kontratuen epe amaiera artekoa izango da.*

## **8. ESLEIPENA.**

*Zozketaren emaitza eta ortuen esleipenak publiko egingo dira 5. oinarrian zehaztutako moduan, eta interesatuei ere jakinaraziko zaie.*

## **9. KONTRATUAREN AMAIERA.**

*Legez ezarritako edozein arrazoiengatik kontratua amaitzerakoan, erabiltzaileak Udalaren esku laga beharko ditu, erabilera eta ustiaketa egoera onean, partzela eta horrekin batera erabiltzeko eskubidea izandako gainontzeko instalazioak. Ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ortua laga beharreko unean ortuan egon daitezkeen landareengatik edo ortuekin lotutako beste kontzeptuengatik.*

## **10. LAGATZE-KONTRATUA ERABAKITZEA.**

*Partzela erabiltzeko baimena indarrrik gabe geldituko da ondorengo arrazoiengatik:*

- 1.- Lagapen epea amaitzeagatik.*
- 2.- Esleipendunak, sei hilabetez, ortua ez erabiltzeagatik inolako arrazoirik gabe.*
- 3.- Erabiltzaileak uko egiteagatik*
- 4.- Erabilera eta funtzionamendu arauak ez betetzeagatik.*
- 5.- Alde biek, ados jarrita, hala erabakitakoan.*



6.- Erabiltzaileak bere aldetik horrela erabakitakoan, hilabete lehenago horrela jakinarazten badu.

7.- Udalak bere aldetik horrela erabakitakoan, bi hilabete lehenagotik esanda, eta herri edo gizarte intereseko arrazoiek hala eskatuta. Kasu horretan, erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

8.- Ureztatzeko arauak betetzen ez badira, lehenengo abisu bat bidaliko da. Erabiltzailearen batek, arau horiek ez betetzeagatik, bigarren abisuren bat jasotzen badu, betiko kenduko zaio udal ortua.

9.- Esleipendunaren heriotzarengatik edo gertatzeko baliaezintasunagatik.

Kontratua ebazteko arrazoiek ez dute inolako eskubiderik sortuko hirugarrenen alde, ezkontideak eta oinordekoak barne.

## **11. ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK.**

Ortua lagatzeko eta erabiltzeko bete beharreko baldintzak

1. Erabiltzailearen kontura izango dira partzela lantzeko beharrezkoak diren elementuak eskuratzea eta mantentzea (lanabesak, ongarriak, haziak, pestizidak...).
2. Erabiltzaileak instalazio komunak onik zaintzeko beharra du, une oro funtzionamendu modu egokian eta garbi egon behar dute. Erabiltzailearen kontura izango dira erabileragatik hondatzen diren gauzak edo desegoki zein arduragabekeriak erabiltzeagatik hondatzen direnen konponketa eta mantentze-lanak.
3. Kutxatila: erabiltzaileek kutxatila bana izango dute ortuko materiala (eta ez besterik) gordetzeko. Erabiltzailearen kontura izango dira kopiak egitea eta sarraila konpontzea, baita beste atal batzuetan jasotako betekizunak ere. Lagapenaren indarraldia amaitzean kutxatila egoera onean itzuli behar da.
4. Erabat debekatuta dago, udalak alde zuzenetik baimenik eman gabe, ortuetan edo guztionak diren elementuetan edozein motatako obrak egitea eta ortuen egiturari eragiten dioten bestelako lanak egitea.
5. Erabat debekatuta dago partzela bakoitzaren mugetatik irtetea.
6. Debekatuta dago ortuetan eta ondoko instalazioetan higienaren kontrakoak edo arriskutsuak diren elementuak gordetzea.
7. Ortua titular bakar bati egokitu zaio eta horrek ezin izango du ez laga ez eskualdatu.
8. Ez da onartzen ortuan zuzeneko landatzea, ezta egiturak egonkorak jartzea ere, besteak beste, bidoiak, etxolak, bankuak, lanabes kutxak...
9. Landatutako produktuak norberak kontsumitzeko izan behar dute; debekatuta dago produktu horiek saltzea.
10. Ez da onartzen animaliarik edukitzea, ez etxeak ez bestelakoak.
11. Ortuen lagatze-aldia amaitutakoan parte hartzaile bakoitzak bere ortua garbi eta hutsik utzi beharko du.
12. Sei hilabete baino pasatzen bada justifikatu gabeko arrazoiengatik (edo arduradunentzat nahikoak ez diren argudioekin justifikatutakoengatik) ortua landu gabe, lagapena galdu egingo da.
13. Arau hauek edo hauetatik eratorriak betetzen ez badira, Udalak partzelaren erabilera eten ahal izango dio erabiltzaileari.
14. Udalak ez ditu bere gain hartzen, ez zuzenean ez subsidiarioki, ortuen erabileragatik sor daitezkeen kalte material, pertsonal edo moralak. Orobat ez da erabiltzaileek izan dezaketen istripuen erantzule ere.
15. Debekatuta dago honako materialak biltegiatzea: a) sukoiak edo eraikinaren segurtasunerako arriskutsuak b) osasunarentzat kaltegarriak.
16. Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean ureztatzeko araudia.



**Ureztatze egutegia:** ureztatzea antolatzeneko bi talde egingo dira:

1. taldea: 14tik 19ra bitarteko ortuak eta 20tik 29ra artekoak.
2. taldea: 1etik 13ra artekoak

1. taldekoek egun batean ureztatuko dute, eta hurrengo egunean 2. taldekoek.

**Horrela egingo da:** txandaka (egun batean goikoak eta behekoak, eta hurrengoan erdikoak). Ureztatzeneko egunak ortuetako txaboletan jarriko den egutegian zehaztuko dira.

**Ureztatzeneko modua:** bakarrik ureztontziekin edota baldeekin egin ahal izango da. Debekatuta dago mangerarik erabiltzea.

## **12. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA.**

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honakoetan ezarritakoa aplikatuko da: Toki Entitateetako Ondasunen Erregelamendua, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (urriaren 30eko 30/2007 Legea), toki erregimeneko gaietan indarrean dauden lege-xedapenak onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Udal Ordenantzak eta aplikatu daitezkeen gainontzeko arauak.

## **13.- ZALANTZAK EBAZTEA**

Udalak bere gain hartzen du baldintza-agiri honetan aurreikusi gabeko alorretan sor daitezkeen zalantzak ebazteko zein erabakiak hartzeko ahalmena, guztiak ondo eta egoki funtziona dezan. Ebazpen horiek Alkate erabakiz hartuko dira, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak proposatuta.



## I ERANSKINA

### TORREBASOKO AISIALDIRAKO ORTUAK ESLEITZEKO ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

#### 1.- DATU PERTSONALAK

IZENA:                              LEHENENGO ABIZENA:  
BIGARREN ABIZENA:  
NAN:  
JAIOTEGUNA:  
ADINA  
HELBIDEA:  
HERRIA:  
TELEFONOAK:

#### 2.- ESKAERA HONEKIN AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

NANaren fotokopia.

Erretiroa edo aurre-erretiroa hartzeagatik lan-bizitzari utzi zaiola egiaztatzeko agiria.

#### 3.- OHARRAK

Behean sinatzen duenak adierazten du ez duela inolako orturik jabetzan, eta aisialdirako ortuak esleitzeko zozketan parte hartzeko eskatutako gainontzeko baldintzak betetzen dituela.



## II ERANSKINA

### TORREBASOKO AISIALDIRAKO ORTUAK ESLEITZEKO ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

#### (ORTUAK ESLEITUTA IZAN DITUZTENAK)

##### 1.- DATU PERTSONALAK

IZENA: LEHENENGO ABIZENA:  
BIGARREN ABIZENA:  
NAN:  
JAIOTEGUNA:  
ADINA  
HELBIDEA:  
HERRIA:  
TELEFONOAK:

##### 2.- ESKAERA HONEKIN AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

- NANaren fotokopia.
- Erretiroa edo aurre-erretiroa hartzeagatik lan-bizitzari utzi zaiola egiaztatzeako agiria.

3.- Eskatzaileak adierazten du ..... zenbakidun partzela izan duela esleituta aisialdirako ortu bezala erabiltzeko, eta berriz ere esleipendun izanez gero partzela hori hartzea/ez hartzea (dagokiona ezabatu) eskatzen du.

##### 4.- OHARRAK

.....  
.....  
Behean sinatzen duenak adierazten du aisialdirako ortuak esleitzeko zozketan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela.